

EAEko IRAKASLEAK

IKHA/COCU 2024-2025

Gaur ikasturte hasierako azken egutegia plazaratu dute [hezkuntzaren web orrian](#).

- UZTAILAREN 19tik 22ra: Hezigunean lanpostuak eskatzeko epea (langile guztientzat), uztailaren 19ko 12:00etatik uztailaren 22ko 12.00ak arte.
- UZTAILAREN 24tik ABUZTUAREN 9ra bitarte: 24tik aurrera modu mailakatuan argitaratuko dituzte esleipenen emaitzak.
- ABUZTUAREN 29a: Ordezlagunean lanpostuak eskatzeko epea, abuztuaren 29ko 11:00etatik abuztuaren 29ko 17:00ak arte.
- ABUZTUAREN 29-30a: Ordezlagunearen esleipenen emaitza argitaratuko da.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Lekualdatze-lehiaketan esleitutako lanpostuen inguruan hainbat erreklamazio jaso ditu Hezkuntza Sailak, ikastetxean ordurik ez dagoelako. Kasu horiek banaka aztertuko dituzte, eta kontrakoa adierazten ez bazaie edo IKHA/COCUko parte-hartzaileen zerrendan agertzen ez badira, funtzionario horiek lekualdatze-lehiaketan esleitutako destinora joan beharko dute; bertan izango dute destinoa.

EPE 2022

Zerbitzu eginkizunean esleitutako lanpostuan praktikak egingo dituzten hautatutako izangaien zerrenda argitaratu dute aurreko ostiralean [hezigunean](#).

IRALE 2024-2025

Irakastordu barneko ikastaroetan onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrendak hezkuntzaren web orrian.

- **Erreklamazioak eta uko egiteko:** 2024ko uztailaren 8tik 11ra (egun biak barne)
- **Liberatuen behin betiko zerrenda:** 2024ko uztailaren 29an

Nahikoa da! Langileok errespetua merezi dugu!!!